

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, SORALUZECO UDALAREN 2010-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Soralezeko Udalaren 2010eko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, diru-sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta diru-laguntzaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Honela, bada, sarrera fiskalei dagokienez HKEEk azpimarratu du merkataritza sozietate batek zorpetutako zerga zorrak kitatu dituela merkataritza areto baten azalera eskubidea 75 urtetarako eskualdatuta; ordea, ordainketa molde hau ez dago egoera honetarako baimendua ezargarria den zerga arautegian.

Langileei dagokienez, azpimarratzekoa da 8/2010 LEDen agindutako soldata murrizketa ez dela ezarri; dekretu honek defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak bideratzen ditu.

Kontratazioaren atalean, HKEEk jakinarazi du Udalak urratu egin dituela zenbait kasutan administrazioko kontratazioan buru egiten duten arauak; besteak beste, azpimarratzekoa da zerbitzuek eragindako gastuak izapidetu eta/edo esleitu direla lehia bermatzeko egokiak ez diren prozedura bitartez; berebat, obra kontratu batek exekuzio materialaren kostuaren gainean % 28ko aldaketa izan du, kontratazio atalak ez izapidetu, ez onartu ez duena.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horren aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari

egindako hainbat doiketen ondorioz, Diruzaintza Geldikina 217 mila euroan murriztu duena.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazio ataletan.

Amaitzeko, Udalaren finantza egoerari dagokionez jakinarazi da aztergai izan diren 2009 eta 2010eko ekitaldietan aurrezki garbia negatiboa izan dela; horri Diruzaintza Geldikinak izan duen murrizketa esanguratsua gehitu behar zaio; guzti honek Udala inbertsioei aurre egingo dien berezko finantzaketa sortzeko etorkizunari begira zailtasun egoeran jartzen du.